

EUSKAL PILOTA EGOKITUKO TXAPELKETA

TXAPELKETA IREKIKO ARAUTEGIA:

- Urritasuna duten pertsonentzako bi kategoria ezberdin jokatuko dira:
 - o Adimen urritasuna duten pertsonentzako zutikako paleta egokitua.
 - o Paleta egokitua gurpildun aulkian. Gurpildun aulkian jokatu nahi duen ororentzat urritasuna izan ala ez.
- Bikoteka jokatu da.
- Izen ematea banaka izango da.
- Antolakuntzak oastuko ditu bikoteak eta nor noren aurka izango den ere.
- Epailak ofizialak egongo dira txapelketa osoan.
- Kategoria bakoitzeko arautegiak eranskinean.
 - o Eranskina 1: Gurpildun aulkiko gomazkok paleta.
 - o Eranskina 2: Zutikako paleta egokitua adimen urritasuna duten pertsonentzat.

Arautegi honek egokitzapenak izan ditzake txapelketa hasitakoan, parte hartzaileen beharretara egokitzeko asmoz.

EUSKAL PILOTA EGOKITUKO ARAUTEGIA

ERANSKINA 1: GURPILDUN AULKIKO GOMAZKO PALETA EGOKITUA

Euskal pilota egokituko arautegiak, euskadiko euskal pilota federakuntzako arautegian oinarrituak daude ondorengo moldaketekin:

I TITULUA: Pilotalekuak:

- Ezker hormako pilotalekua gurpildun aulkiko jokalarientzat irisgarria dena.

II TITULUA: Jokorako erremintak:

- Gomazko paletako paleta. Kadeteena edo haur kategoriakoa izan daiteke, baita bakoitzak bere beharretara egokitutako ere. Arina izatea aholkatzen da.
- Erraketa. Goiko gorputz adarretan urritasun maila altua edo/eta indar falta duten jokalarientzat. Froga bat egin ahal izango da jakiteko erraketa edo paletarekin jokatzea.

III TITULUA: Pilotak:

- Horiak eta presiorik ez duten gomazko pilotak.

IV TITULUA: Jokoa:

- Sakea, tanteoa eta kategoria:

URRITASUN MAILA	SAKEA	TANTEOA	KATEGORIA
Lesio altua goiko gorputz adarretan.	7m-tik 7m-tara (2-tik 2-ra); 14m-tan (4-an) falta.	10	ABSOLUTA
Goiko gorputz adarretan lesio txikia edo lesio gabe.	10,5m-tik 7m-tara (3-tik 2-ra) 14m-tan (4-an) falta.		KATEGORIA BAKARRA

- Faltak:
 - o Pilota 3 bote edo gehiagorekin kolpatzen bada.
 - Bigarren botea joko eremuaren kanpoan izan daiteke.
- Gurpildun aulkiak:
 - o Gurpildun aulkia kiroletakoa izatea aholkatzen da kirolariaren segurtasunagatik.

ERANSKINA 2: ZUTIKAKO PALETA ADIMEN URRITASUNA DUTEN PERTSONENTZAT

Euskal pilota egokituko arautegiak, euskadiko euskal pilota federakuntzako arautegian oinarrituak daude ondorengo moldaketekin:

II TITULUA: Jokorako erremintak:

- Gomazko paleta. Kadete edo hurren paleta izan daiteke, baita bakoitzaren beharretara egokitua ere.

III TITULUA: Pilotak:

- Teniseko pilotak artengo 760.

IV TITULUA: Jokoa:

- Sakea, tanteoa eta kategoria:

INDAR GAITASUNA	SAQUE	TANTEOA	KATEGORIA
Kolpatzeko gaitasun txikia	10,5m-tik 7m-tara (3-tik 2-ra).	10	ABSOLUTUA
Kolpatzeko gaitasun nahikoa	10,5m-tik 10,5m-tara (3-tik 3-ra), 24,5m (7) pasa.		KATEGORIA BAKARRA